

BALORAZIOAK EGITEKO FITXA

BALORAZIOA EGIN DUEN ARLOA:

JARDUERA FISIKOA ETA KIROLA.

✓ **PROPOSAMENA**

Zubiko futbol zelai handiko zementozko hesia kentzea.

✓ **BALORAZIO TEKNIKOAREN ARRAZOA:**

2017ko aurrekontu parte-hartzaileetan hasitako ekimena da hau. Bertako balorazio ekonomikoak ez zuen lan guztiak egiteko adina diru. Ekina lehenengo fasea martxan dago baina perimetro osoko hesia aldatzeko beharra aurrera eramateko 2019ko aurrekontu parte hartzaileetako bigarren ekinena jarri beharko litzateke.

Zubipeko futbol zelaia inguratzen duen zementuzko hesia, futbol zelaia mugatzen duen lerrotik bi metro exkaxera dago kokatua. Hesi honek ertza zorrotzak ditu eta futboleko lehiatzen dauden jokalarientzat arriskutsua izan daiteke.

Horregatik, zementuzko hesia kendu, honek lurrian utzitako zuloak egoki tapatu eta ertzik gabeko metalezko hodi formadun baranda jartzea proposatzen da. Baranda hau osatuz, azpitik niloneko malla bat jartzea proposatzen da, jokatzeko eremua mugatzeko helburuaz eta baloiak eremuaren barruan gera daitezen.

✓ **AURREIKUSPEN EKONOMIKOA (aukera bat baina gehiago badaude, hala adierazi):**

- ✓ Zementuzko hesia kendu (250m lineal), honek utzitako zuloak behar bezala estali eta hondakinen kudeaketaren aurrekontua: 8,000€.
- ✓ Hodi formadun altzairu galbanizatuko baranda osatzeko materiala (2 metrora poste bertikal bat, minimo 60 diametroarekin) eta honen jartzea behar diren baliabide guztiak barne: 18,000€.
- ✓ Hesiaren azpiko aldea ixteko, minimo 3mmko nylonezko sarea. Eta honen jartzea behar diren baliabide guztiak barne: 2,000€.

Guztira, 28,000€.

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO BEHAR DEN EPEA:**

Lanak egiteko gehienez hilabete pasako lukete.

CDHren entrenamendu eta funtzionamenduan eragozpen gutxien izan dezan, lanak goizetan egitea proposatzen da.

✓ **PROPOSAMENA GARATZEKO KOORDINATU BEHARREKO ARLOAK/SAILAK:**

Jarduera Fisikoa eta Kirola

✓ **AURREKONTUAREN ZEIN ATALETAN JOANGO LITZAKE? 3 urtez txertatu behar da?**

✓ **PROPOSAMENAREN BALORAZIO TEKNIKOA. (Prozesuan aurrera – Prozesutik kanpo)**

Balorazio teknikoak ALDEKOA da eta prozesuan aurrera egin dezan proposatzen dugu.